

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Elkartasuna da muina

Pasa den astean “Gazteak eta mugikorrak” izenburua zeukan hitzaldira joan nintzen. Hemen idatzi izan dudak bezala –badakit ez naizela bakarrik– asko kezkatzen nau semeak eta orokorrean gazteak pantailekiko hain itsututa ikusteak. Hain zuzen ere, seme nagusiari mugikorrak ez emateko nire argudio nagusia izan ohi da: «Gero eta beranduago hartu halako bat esku artean, ordura arte askoz gauza gehiago egingo dituzu». Argudioa sinplista bezain ezkorra da, badakit, baina semeak nonbait eskuratu zuen mugikorra berehala kentzerakoan horixe bera pentsatu eta esan nion hala sentitzen dudalako, eta ondo jokatu nuela badakit. Egin dezakezun beste edozer jaten duen gailu bat da, eta horren tentazioaren kontra lehiatzeko ez dakit zer egin.

Nola konbentzitu liburu bat hartzeko, marrazki bat egiteko, mendi buelta bat egiteko, palan aritzeko edo petardoak botatzeko aritze-ko, klik bakarrean mundu oso bat zabaltzen zaienean, non edozer aurki dezaket, edozer izan daitezkeela pentsatzen duten eta haien inguruko beste guztiak ere hor dauden...?

Kontziente eta jakitun naiz –begi bistan dago!– helduok ere berdin-berdin gaudela, ez haiek baino gutxiago, eta gu ere bitartean beste ehunka gauza eta bizipen galtzen gabiltzala. Baina guk zortea izan dugu, ditzosozko aparailu eta teknologia horiek beste gauza asko bizi ostean eskuratu ditugulako. Eta haiek ez!

Haien kasuan ez dakite bereizten zer den egia, zer gezurra, zer ironia eta zer inplizituki sarrarazten ari zaien zaborra. Eta denbora gutxian gertatzen ari da urteetan gure aurrekoek eta geuk egindako lorpen asko, elkartasun hitzean laburbilduko nituzkeenak, gizarte kontzientzian galbidean doazela: izan generoetan, zein arrazatan...

Suposatzen da helduok, haiek ez bezala, nolabaiteko kritikotasuna eta jakintza daukagula, nahiz hori ere gero eta gehiago zalantzan jartzen dudak eta el-

kartasun falta itzela nabaritzen dudak. Nolatan esan zidan, bestela, adibidez, Ukrainako gerrak eztanda egin zuenean, jolas-parkean guraso batek Ukrainara arma gehiago bidali behar zirela bakea lortzeko; edo bere burua ezkertiarizat daukan beste batek Ukrainaren kontrako gerra ezin zela onartu, Europa delako; Palestinan, ordea, halakoetara ohituta zeudela.

Bueltatu gaiten, “Nerabeen garrasia” liburua hizpide, Maitane Ormazabal eta Telmo Lazkano egileen hitzaldira. Bagenekizkien egitate asko azaldu zituzten, baina oso modu argi, irmo eta ulergarrian, beldurgarriak izanda ere, interes handikoak. Erosi dut liburua, jakina, eta irakurtzen hasia naiz, baina gaurkoan ideia nagusi bi ekarriko ditut: nerabeak ez dira kriminalizatu behar, mugikorreko adikzioa ez da haien errua, eta gurasook zeresan handia daukagu horretan. Zergatik? Eredu –honetan txar– garelako, guk ere konpul-

Nerabeak bezala, helduok ere pantailari begira bizi gara, bitartean ehunka bizipen galduz. Horren kontziente naiz. Baina guk zortea izan dugu, beste gauza asko bizi ostean eskuratu ditugulako pantailak

tsiboki erabiltzen ditugulako, eta batez ere guk ematen ez dieguna pantailatan bilatzen dutelako.

Gazteak errudunak ez diren ideien harira, “Arki-tektura Soziala” terminoa azaldu zuten; hain zuzen ere, komunitatean aldaketak eta hobekuntzak egitea elkar laguntzeko, eta ez justu arazoan murgilduta daudenak seinatu eta arazoaren erantzule bakartzat hartzeko. Joera hori, gaur egungo gizartearekin alderatuta, kontrakorrantean doa, non biderkatuz doazen gaixotasunak, bakardadea, lehiakortasuna, bidegabekeria... eta horren guztiaren erdian itotzen dena, bere arazoa delakoan, bakarrik –medikazioaz zein bestela– konpontzeko mezuak nagusitzen diren. •